

**EGEF JARDUNAK, ARABAKO FORU ALDUNDIA. EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGORAKO 2014-2020 EGEF
PROGRAMA ERAGILEA.**



Fondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"
Eskualde Ganapenerako
Europar Funtza (EGEF)
"Europa egiteko modu bat"

Europar Batasuna
Unión Europea

6LA. Ingurumena kontserbatu eta babestea eta baliabideen eraginkortasuna sustatzea

6.4.1.HE. Lurzoruaren, naturaguneen eta haietako biodibertsitatearen kudeaketa, babesa eta mantentze lanak sustatzea, batez ere babestuetan; eta neurriak hartzea honako arazo hauek arintzeko: higadura, gazitzea, basamortutzea, baso soiltzea eta lurzoruan materia organiko gutxi izatea.

**AFA-6B – ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO IBAI IBILGUAK ETA
HEZEGUNEAK INGURUMENAREN ALDETIK KONTSERBATZEA ETA
LEHENGORATZEA**

Azalpena:

Jarduera horren bidez, Arabako ibai ibilgu eta hezeguneetako ingurumena kontserbatu, babestu, mantendu eta lehengoratuko da (landareak sartu, espezie inbaditzaileak kontrolatu eta kendu eta abar).

Gauzatze egutegia:

2018-2023

Finantza alderdiak:

EGEF laguntzaren kopurua: 118.151,81 euro

Arduraduna:

Ingurumen eta Hirigintza Saila - Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzua

Gauzatze adierazlea (2014-2020):

CO23 (Kontserbazio egoera hobea lortzeko diruz lagundutako habitaten azalera): 0,15

Eragiketaren azalpen laburra

2017ko azaroaren 15ean, Arabako Foru Aldundiak lankidetzaren protokoloa izenpetu zuen Uraren Euskal Agentziarekin, koordinatuta eta lankidetzan egiteko Arabako Lurralde Historikoko ibai ibilgu eta ibaiertzen hobekuntza hidraulikorako eta ingurumen aldetik hobetzeko jarduketak.

Lan esparru horren barruan, lurraldeko zenbait ibaitan egokitze eta lehengoratze lanak egin dira, haietako egoera ekologikoa hobetzeko eta andeatutako habitatak lehengoratzeko, lehentasuna emanez Arabako Natura 2000 Sareko ibai tarteetan esku hartzeak egiteari.

Gauzatutako lanen barruan honako hauek sartzen dira: higadura eta ezegonkortasun arazoak dituzten ibaiertzak finkatu eta babestea, ibilguaren buxadura guneeetan jalkinak kentzea eta urbazterretako landare estaldura lehengoratzea.